



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

EHUko IKASLE KONTSEILUAK ESTATUTU BERRIEN ONARPENA OSPATZEN DU, ETA ESKUBIDEETAN, PARTAIDETZAN ETA UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN EREDUAN EMANDAKO AURRERAPAUZOAK NABARMENTZEN DITU

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Bilbo, 2026ko apirilaren 21a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak positiboki baloratzen du Klaustroak unibertsitateko Estatutu berriak onartu izana, onartutako testuak ikasleentzat eta gure herriak behar duen unibertsitate publikoaren ereduarentzat aurrerapauso garrantzitsua dakarrela uste baitu. Arau berriak hobekuntza esanguratsuak jasotzen ditu eskubideen, partaidetzaren eta bermeen arloan, eta unibertsitatearen ikuspegi demokratikoagoa, sozialagoa eta hura osatzen duten pertsonen benetako beharretara lotuagoa sendotzen du.

Ikasle Kontseilutik azpimarratu nahi dugu Estatutu hauetan, prozesu osoan zehar, ikasleen ordezkartzak egindako lanak, proposamenek eta presio politikoak eragina izan dutela. Ikasleak bertan egon dira, proposamenak egin dituzte, posizioak defendatu dituzte, eta azken testuak hasieratik bermatzen ez zituen aurrerapenak jasotzen lagundu dute.

Bereziki ospatzen dugu Estatutu berriek ikasleen eguneroko bizitzan zuzenean eragiten duten eskubideak indartzea. Kontziliazioa, osasun mental eta emozionala, deskonexio digitala, egoera pertsonal zailtan arreta jasotzea eta ikasleen eskubideak baliatzeko bermeen hobekuntza bigarren mailako kontuak izateari uzten diote, eta **EHUko oinarrizko arauaren funtsezko muinaren** parte izatera igarotzen dira. Ez gara kontu hutsalez ari, berdintasunez eta duintasunez ikasi ahal izateko oinarrizko baldintza materialez baizik.

Era berean, testu berriak ikasleei aitortza politiko eta instituzional handiagoa ematea garrantzitsua dela uste dugu, unibertsitate komunitateko parte aktiboa direla. Ikasleen ordezkartza sendotu egiten da, Ikasle Kontseiluen eginkizuna indartu egiten da, eta partaidetzarako, aldarrikapenerako eta etenaldi akademikorako eskubideak era argiagoan aitortzen dira. Horrek guztiak ikasleen papera guztiz menperatuta uzten zuen ikuspegia baztertu egiten du, haien posizioak babesteko legitimitatea eta antolatze eta parte hartze gaitasuna aitortzen duen ikusmolde baten mesederako.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Ikasle Kontseiluak nabarmendu nahi du, gainera, ikasleek unibertsitatearen gobernantzan duten partaidetzari buruz izandako eztabaidaren emaitza. Ikasleek gobernu organoetan eta errektorearen hauteskundera duten pisua indartzen duten aukerak eta planteamenduak onartu izana garrantzi handiko lorpena da. Unibertsitatea demokratikoagoa izango da bere komunitateko kolektiborik handienak erabakiak hartzen diren lekuetan ahots sendoagoa duen neurrian.

Horrez gain, Ikasle Kontseiluak balioan jartzen du Estatutu berriek unibertsitate publiko bat irudikatzea, berdintasunaren, feminismoaren, aniztasunaren, hizkuntza eskubideen, jasangarritasunaren eta giza eskubideen arloan konpromiso argiak dituen. Bereziki positiboa da testuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunarekiko konpromisoa, indarkeria matxistaren aurkako borroka, pertsona ez-binarioen aitortza, LGTBQ+ kolektiboarekiko errespetua, euskararen defentsa eta unibertsitate bizikidetzaren ikuspegi sozial eta demokratikoa jasotzea. Oinarrizko adostasun horiek zalantzan jarri nahi dituzten hainbeste diskurtso erreakzionario dauden garai honetan, unibertsitate publikoak bere oinarrizko arauan horiek berariaz jasotzeak balio sinboliko handia du.

Ikasle Kontseiluak ospatzen du, halaber, Estatutu berriek muga etiko argiak ezartzea unibertsitateak gizartean izan behar duen paperari dagokionez. Ildo horretan, oso modu positiboan baloratzen du testuak armagintza industria eta erabilera militarreko aplikazioak ezagutzaren transferentziaren esparrutik kanpo uztea.

Ikasle Kontseiluaren ustez, Estatutu hauen onarpenak ez du ezer ixten. Aitzitik, etapa berri bati ematen dio hasiera. Hemendik aurrera, beharrezkoa izango da haien garapena defendatzea, haien betearazpena zaintzea eta gaur lortutako aurrerapenak ikasleen bizitzan benetako aldaketa ekartzeko lanean jarraitzea.

Azken batean, EHUko Ikasle Kontseiluak uste du Estatutu berrien onarpena albiste ona dela ikasleontzat eta Euskal Unibertsitate publikoarentzat.

EHUko Ikasle Kontseilua



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua

P R E N T S A O H A R R A